



ARAMBERRI ECHEBERRIA, EIDER

---

## 2020ko Olinpiar Jokoak Euskadin jokatuko dira.

*Arnasa hartu du. Sakon. Bi aldiz. Eta begiak itxi ditu. 2020ko uztailaren 20a da. Prest dago. Urduri. Oso urduri. Tximeletak sentitzen ditu barrenean. Iritsi da momentua. Gorriz margotu ditu ezpainak. Armairuko soinekorik politena jantzi du. Arnasa hartu du. Sakon, berriz ere. Azken urteotako albisterik garrantzitsuenaren berri ematera doa. Urrun dago 2011ko maiatza. Oso urrun. Bederatzi urte joan dira. Bederatzi urte pasa ditu momentu hau amesten. Bederatzi urte momentu honetarako prestatzen.*

*Usain Bolt, Michael Phelps, Yelena Isinbaieva, Roger Federer, Novak Djokovic, Kobe Bryant. Ainhoa Murua, Richard Oribe, Oiana Blanco, Ekaitz Saies, Mikel Odriozola, Maialen Chourraut. Donostian dago. Anoetako olinpiar estadioan. Munduko kirolari onenez inguratuta. Zoratzten. Eta kameraren argi gorritxo piztu da. Arratsaldeko ordu biak dira. Gaur Egun hasi da.*

*"Arratsaldeon ikus entzunle guztioi..."*

*Gogor eutsi dio mikrofonoari. Kameraren zulo beltzera begira dago. Ez du inor ikusten. Zulo beltza. Besterik ez. Milaka lagunek ikusiko dute bera. Albistegiko lehenengo zuzeneko konexioa izango da. Bera. Duela bederatzi urte kazetaritza ikasketak amaitu zituen bera.*

*Aurkezleak agurtu du. Ez du hutsik egin. Ederra. Ederra izan da bere lehen aldia. Bere lehen zuzenekoa pantaila txikian. Irribarre bat marraztu du aurpegian. Pozik dago. Oso pozik. Begiak itxi, eta laino baten gainean balego bezala, hegan jarraitu du. Ametsetan. Hasi dira Olinpiar Jokoak.*

*Iratzargailuak jo du. Ozen. Inoiz baino ozenago. Lo sakonetik esnatu da. Salto batean. Orduari begiratu dio. Goiz da. Seiak ia-ia. Ez dio axola. Bere lehen lan eguna da gaurkoa. Euskal Telebistan. Hainbeste denbora pasa du une honen zain... Iritsi da. Egun berezia izango da. Inoiz ahaztuko ez duen horietako bat. Ziur. Bere irribarrerik politena atera zaio barrutik. Egun guztirako irribarrea. Zoriontasuna besterik ez du sentitzen barrenean. Ezin du ezkutatu. Nahita ere, ezin du. Atzean geratu dira kezkak eta zalantzak. Bidegurutzeak. Gaizki hartutako erabakiak. Bi urte pasa dira kazetaritza ikasketak amaitu zituenetik. Luze joan da denbora. Oso luze.*

*Berandu dabil. Dutxa azkar bat eta kafe hutsa. Esnatzeko. Bart ametsetan aritu dela konturatu da. Baina ez du gogoan zer. Ordenagailua piztu du. Sare sozialei begirada bat. Egunkariei beste bat. Eguneko albisteez janzteko. Webgune guztietako titular batek geldiarazi du. Begiak itxi ditu. Eta berriz ireki. Ezinezkoa da. Berriz. Begiak itxi. Ireki. Ez da ari ametsetan. Orain ulertu du guztia. Ametsa bera bezain erreala da ikusten ari dena.*

## Los Juegos Olímpicos de 2020 se celebrarán en Euskadi.

*Respira. Profundamente. Dos veces. Y cierra los ojos. Es 20 de julio de 2020. Está lista. Nerviosa. Muy nerviosa. Siente mariposas en el estómago. Ha llegado el momento. Se ha pintado los labios de rojo pasión. Se ha puesto el vestido más bonito que tenía en el armario. Respira. De nuevo, profundamente. Va a informar sobre la noticia más importante de estos últimos años. Queda lejos aquel mayo de 2011. Muy lejos. Nueve años soñando con este momento. Preparándose para este momento.*

*Usain Bolt, Michael Phelps, Yelena Isinbayeva, Roger Federer, Novak Djokovic, Kobe Bryant. Ainhoa Murua, Richard Oribe, Oiana Blanco, Ekaitz Saies, Mikel Odriozola, Maialen Chourraut. Está en San Sebastián. En el estadio olímpico de Anoeta. Rodeada de los mejores deportistas del mundo. Loca de alegría. Y se enciende la luz roja de la cámara. Son las dos de la tarde. Empieza Teleberri.*

*"Buenas tardes a todos los telespectadores..."*

*Agarra con fuerza el micrófono. Está mirando al foco negro de la cámara. No ve a nadie. Sólo el foco negro. Nada más. Miles de personas le verán a ella. Va a ser la primera conexión en directo del telediario. Ella. La misma que hace nueve años acabó los estudios de periodismo.*

*El presentador le ha dado paso. No ha fallado. Triunfal. Así ha sido su primera vez. Su primera vez en la pequeña pantalla. Ha dibujado una sonrisa en la cara. Está feliz. Ha cerrado los ojos, y como si estuviera encima de una nube, ha seguido volando. Soñando. Ya han empezado los Juegos Olímpicos.*

*Ha sonado el despertador. Fuerte. Más fuerte que nunca. Se ha despertado del sueño profundo. De un salto. Ha mirado el reloj. Es temprano. Casi las seis. No importa. Hoy es su primer día de trabajo. En la Euskal Telebista. Ha esperado tanto a que llegara éste momento... Ha llegado. Será un día especial. De esos que jamás olvidará. Seguro. Ha esbozado su sonrisa más bonita. Para todo el día. No siente nada más que felicidad. No lo puede esconder. No lo puede. Han quedado atrás las preocupaciones y las dudas. Las encrucijadas. Las decisiones mal tomadas. Han pasado dos años desde que acabó la carrera de periodismo. Ha pasado mucho tiempo desde entonces. Demasiado.*

*Llega tarde. Una ducha rápida y un café. Para despertarse. Recuerda que anoche soñó. Pero no recuerda qué. Ha encendido el ordenador. Un repaso a las redes sociales. Otro a los periódicos. Para ponerse al día de las últimas noticias. Le ha paralizado un titular de todas las páginas web. Ha cerrado los ojos. Y los ha abierto de nuevo. No puede ser. Otra vez. Cierra los ojos. Abre. No está soñando. Ahora lo ha entendido todo. El sueño se ha hecho realidad.*